



ESKOLAKO OHARRAK

JARDUN JARRAIA

Ikasturte amaiera iristen ari da eta ekainak 2an, datorren asteazkenean, jardun jarraiko jardunaldiari hasiera emango zaio. Hori dela eta, gogorazi nahi dizuegu, etxean bazkaltzen duten ikasleek, eskola 12:30etan bukatuko dutela; jangelan bazkaltzen duten ikasleek ordea, 14:30etan bukatuko dutela. Era berean, bazkalosteko garraio zerbitzua 14:30etan hasiko da.

ATERPEA

Hurrengo ekainak 2an, asteazkenean, jardun jarraia hasten dugun egunean, arratsaldeko 15:00etatik aurrera, aterpeko lurrean tratamendu berezi bat emango da. Hori dela eta, aterpea ez da erabilgarri egongo.




JANGELA

Ekainaren 2tik aurrera, goizeko jardunean bakarrik lan egingo dugu. Hori dela eta, ikasturtean zehar jangelan bazkaldu ohi duten hainbat ikasleek etxean bazkalduko dute beraien familiekin. Janaririk ez zahutzeko eta ahalik eta erabilpen egokiena egiteko, egun horietan jangelan bazkaldu beharrean etxean bazkaltzeko asmoa baldin baduzue, eskolan telefono bidez edo email bidez jakinarazi, mesedez. Eskerrik asko.

COVID19

Gauden pandemia egoeran, ikasleen PCR frogen emaitza positiboa denean eskolako zuzendaritzari edo ikasleen tutoreei jakinaraztea eskatzen dizuegu, mesedez. Honela guk gure barne protokoloa ahalik eta azkarren martxan jar dezagun.



APARKALEKUA

Familia guztiei gogorazi nahi dizuegu, eskolako aparkalekua eskolako langileek soilik erabili dezaketela. Familia batzuek oraindik errespetatzen ez dutenez, Udaltzainak jakinaren gainean jarriko ditugu modu desegokian erabiltzen den bakoitzean.



FEMINISMOA

Mary Winston Jackson (1921eko apirilaren 10a - 2005eko otsailaren 11) matematikari eta ingeniari aeroespazial estatubatuarra izan zen. Mary Jackson 1921eko apirilaren 9an jaio zen, Ella Scott eta Frank Winston alaba. Hamptonen hazi zen, Virginian, eta txikitatik gaitasun handia erakutsi zuen zenbaki eta zientziarako, bigarren hezkuntzan ohore handienekin graduatu zelarik. Langleyko Ikerketa Zentroan lan egin zuen bere bizitzaren zatirik handienean, kalkulatzailer bezala Mendebaldeko Eremuko Kalkulu Dibisioan hasiaz, eta, beranduago, NASAko lehen ingeniari beltza izatera iritsi zen. NASAn 34 urte eman ondoren, Jackson ahalik eta ingeniari lanpostu altuenera iritsi zen.



Oiartzungo Oinherriren aurkezpen ekitaldia

Nolako herria nahi dugu?

Zein da gure ametssetako Oiartzun?

Hori eta gehiago erabakitzeko gai gara. Oiartzun herri hezitzailea izan dadin nahi dugu, izan ere, denok egiten dugu herria, denok izan gaitezke hezitzaile!

Hori dela eta, gonbidapena luzatzen dizugu Oiartzungo OinHerriren aurkezpen ekitaldirako.

Noiz: ekainaren 5ean


Non: Arizmendi Enean (eguraldi txarra eginez gero Elizaldeko Frontoian)

Ordua:

- 11-12:30 Haur eta gazteekin "herria sortzen" tailerra
- 12:30 aurkezpen ekitaldia

Ziur denok dugula zer eskainia, animatu! Bertan ikusiko dugu elkar!

Aforo mugatua dela eta, izen-ematea esteka honetan: [esteka honetan](#).



Oiartzun
HERRI
HEZITZAILEA

*Oinherritu
zaitetz
zu ere!*

EKAINAK 5

11:00tan Haur eta
gazteekin herria
sortzen.

12:30ean AURKEZPEN
EKITALDIA

Arizmendienean

Aforoa mugatuta
egongo denez,
izena emateko
formularioa hemen:



BENETAKO PARTE
HARTZEA ETA
ERABAKITZEKO
AHALMENA



AISIA
HEZITZAILEA



EUSKALDUNA

Udaleku digitalak online

UDALEKU IKT *eroak*



Bi aste Egunean bi ordu Online

Konpetentzia digitala landuz

Euskara hutsean

Bi txanda Uzt. 5 - Uzt. 16 // Uzt. 19 - Uzt. 30

Plaza mugatuak Epea: Ekainak 15

130€

IZEN-EMATEA

ikt_on

